

IDEIA

Proiektu honekin lortu nahi duguna, emakumea babestua sentitzea da, emakumeak jakitea zerbait gertatu ezkeror, norbait izango duela pultseraren beste aldean laguntza emateko prest. Berez, gure helburua emakumeak babestea da, eta ondorioz, emakumeei zuzendua dago proiektua. Hala ere, edozeinek eros dezake arrisku une batean dagoenean erabiltzeko. Sortuko dugun gailua aplikazioa moduan badagoen arren, geuk gailu fisiko bilakatuko dugu, pultsera forma emanaz zehazki. Balio erantsia, pultserari jarriko diogun botoia da, honek, 112-ra deituko du. Erabiliko ditugun materialak, silikona eta botoia izango dira. Beraz, inbertsioa ez da oso handia izango. Produktua, edozein eratako (gehienbat eraso sexista) eraso jasan duen edonork gomenda dezake. Gure ustez, bezeroak asko izango dira, denei lagundu baitiezaioke honek. Badira beste pultsera batzuk galtzean edo eta arazo fisikoak sentitzean erabiltzen direnak, gureak ordea, hortaz gain eraso sexualak ekiditeko ere balioko du. Gainera, pultsera horiek egiten dituzten enpresak ez dira oso famatuak, batez ere, ez dutelako inolako publizitaterik egin. Pultseraz gain, aplikazioa ere sortuko dugu, eta honen bidez, botoia sakatu duenaren familiarrek bere ubikazioa ikusteko aukera izango dute.

